## FORUAKO UDAL HILERRIAREN ARAUDIA

### I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**

Foruako Udal Hilerria herri zerbitzuko ondasuna den aldetik, Udal honi dagozkio beren beregi hilerri horren administrazio, zaintza eta zuzendaritza, Araudi honetan adierazitakoaren arabera; salbu eta beste agintaritza eta erakundeen eskumena den kasuetan.

## REGLAMENTO DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE FORUA

### TITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**

El Cementerio Municipal de Forua, como bien de dominio y servicio público queda sometido exclusivamente a la administración, cuidado y dirección del Ayuntamiento, en los términos que se indican en el presente Reglamento, salvo en aquello que sea competencia propia de otras autoridades y organismos.

### 2. artikulua

Ondorengo hauek dira Udalaren eskurantzak, hileta-araudi arloan indarrean dauden arauen arabera:

— Hilerri, hilobi-eraikuntza, zerbitzu eta instalazioak antolatu, artatu eta atontzea.

— Hilerriaren barruko araubidea.
— Hilerrian edozein motatako obra edo instalazioak egiteko baimena ematea norbanakoei eta lan horiek zuzendu eta ikuskatzea.
— Hilobi-emakidak eman eta edozein motatako hileta-eskubideak aitortzea.
— Ezartzen diren eskubide eta tasak zuzenbidearen arabera jasotzea.
— Osasun eta higiene neurriak betetzea.
— Udala hilerriaren jabea eta erakunde publikoa izanik berari dagokion beste edozein eginkizun betetzea; izan ere, udal mugartean hari dagokio jarduera araupetzea.

### 3. artikulua

Honako hauek dira norbanakoen eskurantzak:

— Hilerrian gorpua duintasunez ehorzteko eskubidea, inolako bereizkeriarik gabe, ez jatorri, ez arraza, ez sexu, ez erlijio, ez beste ezergatik.
— Araudi honek dioen bezala, nork bere erlijio eta ideologiaren arabera bidezko jotzen dituen hileta-eskubideak hautatu eta edukitzea.
— Hilobi eta horma-hilobiak beharrezko artapen-estetika eta apaindura baldintzetan mantentzea.
— Hainbat zerbitzu eskaintzeagatik dagokion Zerga Ordenantzan ezarri diren eskubide edo tasak ordaintzea.

— Foruako Udalak edo bestelako edozein administrazio edo erakunde eskudunek osasun hileta-araudi arloan ematen dituzten xedapenak errespetatu eta betetzea.

### 4. artikulua

Erlijio ezberdinetako sinestunek edo legez onartutako erakundeetako ordezkariek bidezkoen jotzen dituzten eran antolatu ahal izango dituzte ehorzketak, kasu bakoitzeko arauen arabera eta hildakoei zor zaien begirunearen barruan.

### 5. artikulua

Bere egoera edo beste arrazoi batzuk direla bide, barruko lasaitasuna eta ordena apur dezakeen pertsonarik ezin izango da sartu. Era berean, txakurrak ez beste animalia batzuk ezin sar daitezke hilerrietan, itsu-txakurra izan ezik eta itsuren batek badarama.

## II. TITULUA

## KUDEAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ARTAPENA

### LEHENENGO KAPITULUA

### TITULARTASUNA ETA INSTALAZIOAK

### 6. artikulua

Foruako Udal Hilerria Foruako Udalarena da bakar-bakarrik, eta berari dagokio hilerria zuzendu, administratu, araupetu eta artatzea.

### 7. artikulua

Hilerriak honako instalazio hauek ditu:

1. *Hilerri zaharra*

— Lur komuna.
— Hilobiak.
— Hezurtegi komuna.
— Panteoiak.
— Kapera berria.

### Artículo 2

Corresponden al Ayuntamiento, las siguientes atribuciones, con sujeción a la normativa vigente en materia de policía mortuoria:

— La organización, conservación y acondicionamiento del cementerio, así como de las construcciones funerarias, de los servicios e instalaciones.
— El régimen interior del cementerio.
— La autorización a particulares para la realización en el cementerio de cualquier tipo de obras o instalaciones, así como su dirección e inspección.
— El otorgamiento de las concesiones sepulcrales y el reconocimiento de los derechos funerarios de cualquier clase.
— La percepción de los derechos y tasas que se establezcan con arreglo a derecho.
— El cumplimiento de las medidas sanitarias e higiénicas.
— Cualesquiera otras funciones que puedan corresponderle atendiendo a su carácter de propietario y a su condición de entidad pública, a quien compete la regulación de la actividad dentro del término municipal.

### Artículo 3

Corresponden a los particulares:

— El derecho a la inhumación digna en el cementerio, sin discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión o por cualesquiera otras.
— Elegir y disfrutar, en los términos del presente Reglamento, de los derechos funerarios que corresponden a su religión e ideología.
— Mantener las sepulturas y nichos en las debidas condiciones de conservación estética y ornato público.
— Abonar los derechos o tasas que por las prestaciones de los distintos servicios se establezcan en la correspondiente ordenanza fiscal.
— Respetar y cumplir cuantas disposiciones dicte el Ayuntamiento de Forua u otra Administración o Entidad competente en lo referente a policía sanitaria mortuoria.

### Artículo 4

Los representantes de distintas confesiones religiosas o de entidades legalmente reconocidas podrán disponer lo que crean más conveniente para la celebración de los entierros de acuerdo con las normas aplicables a cada uno de los casos y dentro del respeto debido a los difuntos.

### Artículo 5

Se impedirá la entrada a toda persona o grupo de personas que, por su estado u otras causas, pudieran perturbar la tranquilidad y orden del recinto. Tampoco se permitirá la entrada al cementerio de perros u otros animales, salvo que tengan carácter de lazarillo y en compañía de invidentes.

## TITULO II

## GESTION, ADMINISTRACION Y CONSERVACION

### CAPITULO PRIMERO

### TITULARIDAD E INSTALACIONES

### Artículo 6

El Cementerio Municipal de Forua es de exclusiva propiedad del Excmo. Ayuntamiento de Forua, a la que corresponde su dirección, administración, regulación y conservación.

### Artículo 7

El Cementerio consta de las siguientes instalaciones:

1. *Cementerio antiguo*

— Tierra común.
— Sepulturas.
— Osario común.
— Panteones.
— Nueva capilla.

2. *Hilerria berria*

— 108 banakako horma-hilobiak.

— 105 hezurtegi edo gorpuzkien horma-hilobiak.

BIGARREN KAPITULUA

**KUDEAKETA**

**8. artikulua**

1. Hilerriaren kudeaketak honako helburu hauek barne hartzen ditu:

— Hilerriaren administrazioa eta horren ordena eta garbitasuna.

— Gorpuak edota gorpuzkiak ehortzi edo hobitik ateratzea; eta osasun-hileta arloan indarrean dagoen legeriak behartutako beste edozein jarduera.

— Hilerriko osagai, eraikin eta instalazioak artatu, mantendu, garbitu eta horiek funtzionatzeko beharrezkoak diren obra, zerbitzu eta lanak egitea.

2. Foruako Udalak aurreko atalean aipatutako zereginak beteko ditu, aplikatu beharreko estatuko xedapenek emandako eskumenak betez eta Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

**9. artikulua**

Foruako Udalak bere xedeak betetzera bideratuta dauden eginkizun tekniko eta administratiboak burutzeko ahalmena du eta, batez ere, hurrengo zeregin hauek betetzeko:

1. Honako arloei buruzko espedienteak hasi, instruitu eta ebaztea:

— Mota guztietako hileta-eskubideak eman, aitortu eta aldatzea, baita horien onuradunak zeintzuk diren esan eta horien gaineko tituluak bideratu eta ematea.

— Gorpu eta gorpuzkiak ehortzi, hobitik atera, lekuz aldatu, erraustu eta deuseztatzeko baimentzea.

2. Udal Hilerria mantendu, garbitu eta behar bezala funtzionatzeko beharrezko zerbitzu eta lanak burutzea. Halaber, norbanakoek bertan egingo dituzten obretarako lizentziak, fiskalizazio teknikoa eta baimena ematea.

3. Udal Hilerria kudeatzeko helburuekin bat datorren beste edozein zeregin eta hitzartzen dena.

**10. artikulua**

Araudi honetan agertzen diren zerbitzuak eskaintzeagatik aplikatu beharreko Zerga Ordenantzetan ezartzen diren ordainarazpenak.

**11. artikulua**

Udala Hilerriaren barrunbean ordena mantentzeaz arduratuko da, baita horko eginkizunei zor zaien begirunea eskatzeaz ere. Horretarako, honako arau hauek betearaziko dira:

— Hilerriaren barrunbea Alkate-Presidenteak zerbitzuaren beharrizanen arabera ezarri duen orduetan egongo da jendearentzako zabalik. Hilerria ireki eta ixteko orduak sarreran agerraraziko dira, behar diren adierazkariak jarrita.

— Bisitariek barrunbeari zor zaion begirunearekin jokatuko dute beti; bestela, arau hori betetzen ez dutenak kanporatzeko legezko neurri eskudunak har ditzake Udalak.

— Udalak barrunbea zainduko du orokorrean; dena den, ez du bere gain hartuko beste inork egin ditzakeen hilobi, instalazio, horma-hilobi eta hilerrian jartzen diren objektuen lapurreta eta kalteen erantzukizunik, indarreko legerian aurreikusitako kasuetan izan ezik. Halaber, horma-hilobi bat irekitzean norbanakoek jarritako hilarriak apurtzen badira, hilerriko langileak ez dira horren erantzule izango.

2. *Cementerio nuevo*

— 108 nichos individuales.

— 105 osarios o nichos de restos.

CAPITULO SEGUNDO

**GESTION**

**Artículo 8**

1. La gestión del cementerio comprende los siguientes objetivos:

— La administración del cementerio y el cuidado de su orden y policía.

— La inhumación y exhumación de cadáveres y/o restos y cualesquiera otras actuaciones exigidas por la legislación vigente en materia sanitaria-mortuoria.

— La realización de obras, servicios y trabajos necesarios para la conservación, mantenimiento y limpieza de los elementos, edificios e instalaciones del cementerio, así como para el funcionamiento de éstas.

2. El Ayuntamiento de Forua desarrollará los cometidos señalados en el apartado anterior con sujeción a las competencias atribuidas por las disposiciones estatales que resulten de aplicación y de conformidad con lo establecido en la presente Reglamento.

**Artículo 9**

El Ayuntamiento de Forua está facultado para realizar las funciones administrativas y técnicas conducentes al cumplimiento de sus fines y, en particular, para el pleno ejercicio de las que a continuación de relacionan:

1. Iniciación, instrucción y resolución de expedientes relativos a:

— Concesión, reconocimiento y modificación de toda clase de derechos funerarios, así como designación de sus beneficiarios y tramitación y expedición de los títulos referentes a los mismos.

— Autorización para la inhumación, exhumación, traslado, incineración y reducción de cadáveres y restos humanos.

2. Servicios y trabajos necesarios para el mantenimiento, limpieza y adecuado funcionamiento del Cementerio Municipal, así como la concesión de licencias, fiscalización técnica y autorización de las obras que los particulares efectuaran en el mismo.

3. Cualesquiera otras adecuadas a los objetivos propios de la gestión del Cementerio Municipal que sean acordadas.

**Artículo 10**

Las exacciones por la prestación de servicios a que se refiere este Reglamento vendrán determinadas por las correspondientes Ordenanzas Fiscales que en cada momento resulten de aplicación.

**Artículo 11**

El Ayuntamiento velará por el mantenimiento del orden en el recinto del Cementerio, así como por la exigencia del respeto adecuado a las funciones del mismo, mediante el cumplimiento de las siguientes normas:

— El recinto del cementerio permanecerá abierto al público en horario que establezca el Alcalde-Presidente, de acuerdo con las necesidades del servicio. Los horarios de apertura y cierre se harán constar mediante los correspondientes indicativos, en los accesos al recinto.

— Los visitantes se comportarán en todo momento con el respeto adecuado al recinto, pudiendo en otro caso adoptar el Ayuntamiento, las medidas legales a su alcance para ordenar el desalojo de quienes incumplieran esta norma.

— El Ayuntamiento realizará la vigilancia general del recinto, si bien no asumirá responsabilidad alguna respecto a robos y desperfectos que pudieran cometerse por terceros en las sepulturas, instalaciones, nichos y objetos que se coloquen en el Cementerio, fuera de los casos previstos en la legislación vigente. Asimismo el personal del cementerio no se hará responsable de la ruptura de las lápidas colocadas por los particulares en el momento de abrir un nicho.

— Hilerriaren barrunbean ezin jardun liteke ezer saltzen eta ezin liteke edozelako propagandarik egin.
— Hilobien argazki, erreportaje, marrazki edota margolan egiteko, eta mota honetako barrunbeenak berezkoak ez diren ekintzak egiteko, aurretik baimen berezia eman beharko du Udalak horretarako, eta beti ere beste erabiltzaileei zor zaien begirunea zainduko da.
— Hilobi-obrak eta inskripzioak barrunbeko zereginari zor zaion begirunearekin bat etorri beharko dira. Nolanahi ere, inskripzioak jartzeko baldintzak araudi honi erantsitako agirietan xedatutakoaren arabera araupetuko dira eta agiri horietan agertzen ez diren baldintzak Alkatetzaren ebazpenaren bidez araupetuko dira, udal teknikari eskudunak egindako txostenaren arabera.
— Gorputegi, hezurtegi komun eta hilerriko langileentzako bakarrik diren instalazioetan ezin izango da sartu, Udalak baimen berezia ez badu eman.
— Norbanakoek hilobien garbiketa, mantentze eta apaindura lanak egiten dituztenean, instalazioei zor zaien begirunea zaindu beharko dute. Lan horiek bukatu ondoren, tokia eta ingurua garbitasun eta apaindura baldintza egokietan geratu behar dira eta hondakinak, zaborrak eta erabili den lanmateriala berehala batu behar dira.

### 12. artikulua

1. Udalak egindako jarduera eta zerbitzuak planeatu eta kontrolatzeko, liburuak edo erregistroak edukiko ditu, izan ere, hilerria behar bezala administratzeko beharrezkoak dira.

2. Eskabide eta kexak Udal Erregistro Nagusian aurkeztuko dira eta hortik organo eskudunari bidaliko zaizkio, jakin eta bideratu ditzan.

## HIRUGARREN KAPITULUA
## ADMINISTRAZIOA

### 13. artikulua

Tokiko hileta-zerbitzuek honako eskumen hauek ditu:

— Ehortzi, hilobitik atera eta lekuz aldatzeko lizentziak ematea.
— Ehorzketa zedulak ematea.
— Ehorzketa erregistro liburu eta hilobi zein horma-hilobien fitxategiaz arduratzea.
— Idazpenak erregistro liburu guztietan egitea.
— Dagokien udal dekretuekin bat etorrita, tituluak eman eta eskualdatzeak idaztea.
— Hileta-zerbitzuak eskaintzeagatik Zerga Ordenantzetan ezartzen diren eskubide eta tasak kobratzea.
— Hilerriko zerbitzuak ongi kudeatzeko egokiak diren gaiei buruzko proposamenak egitea Udalari.
— Hilerriko zerbitzuei lotutako beste edozein eginkizun.

### 14. artikulua

Udal hileta-zerbitzuen ardura duen administrazio-atalak honako eskumen hauek ditu:

— Hilerriko agiriez arduratzea eta beste udal organo eskudunekin batera, hilerriaren funtzionamendu, artapen, zainketa eta garbiketari dagokiena koordinatzea.
— Eskatzen dituzten txostenak ematea eta zerbitzuaren ardura diren liburu eta agiriei buruzko ziurtagiriak egiaztatzea.
— Hilerriko zerbitzuak ongi funtzionatzeko beharrezkoak diren premiazko neurri guztiak hartzea, neurri horiek aurretik beste eskudun organoekin hitzartu ezin direnean. Horrela bada, beste organoei neurri guztiak jakinaraziko zaizkie lehenbailehen.

— Se prohíbe la venta ambulante y la realización de cualquier tipo de propaganda en el interior del recinto del Cementerio.
— La realización de fotografías, reportajes, dibujos y/o pinturas de las unidades de enterramiento, así como la celebración de actos que no correspondan a la actividad ordinaria de este tipo de recintos, quedarán sujetas a la previa autorización especial del Ayuntamiento, salvaguardando, en todo caso, el respeto debido al resto de usuarios.
— Las obras e inscripciones funerarias deberán estar en consonancia con el respeto debido a la función del recinto. En todo caso las condiciones para la colocación de inscripciones se regularán en base a lo dispuesto en la documentación anexa a este reglamento y las no contempladas en ella, se regularán mediante resolución de la Alcaldía, según informe del técnico municipal competente.
— Queda prohibido, salvo autorización especial del Ayuntamiento el acceso del público al depósito de cadáveres, y al osario común, así como a las instalaciones reservadas al personal del cementerio.
— Las labores de limpieza, mantenimiento y ornato de las unidades de enterramiento por parte de los particulares deberán realizarse con respeto a las instalaciones, y concluidas estas actividades, el espacio intervenido y su entorno deberán quedar en las debidas condiciones de limpieza y ornato, debiendo ser retirados inmediatamente los escombros, desperdicios y material de trabajo empleado.

### Artículo 12

1. El Ayuntamiento mantendrá, como instrumento de planeamiento y control de las actividades y servicios llevados a cabo, los libros o registros necesarios para la buena administración del cementerio.

2. Las peticiones y quejas se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, desde donde serán trasladadas al órgano competente para su conocimiento y tramitación.

## CAPITULO TERCERO
## ADMINISTRACION

### Artículo 13

Corresponde a los servicios funerarios locales las siguientes competencias:

— Expedir las licencias de inhumación, exhumación y traslado.
— Expedir cédulas de enterramiento.
— Llevar el libro registro de enterramientos y el fichero de sepulturas y nichos.
— Practicar los asientos correspondientes en todos los libros registro.
— Expedir los títulos y anotar las transmisiones de acuerdo con los decretos municipales correspondientes.
— Cobrar los derechos y tasas por prestación de servicios funerarios, de conformidad con la ordenanza fiscal correspondiente.
— Formular al Ayuntamiento las propuestas necesarias en relación con aquellos puntos que se consideren oportunos para la buena gestión de los servicios del cementerio.
— Cualquier otra función relacionada con los servicios del cementerio.

### Artículo 14

Corresponde a la sección administrativa encargada de los servicios funerarios municipales:

— Llevar la documentación del cementerio y coordinar con los otros órganos municipales competentes, todo lo referente al funcionamiento, conservación, vigilancia y limpieza del cementerio.
— Expedir los informes que se soliciten y confirmar las certificaciones con referencia a los libros y otros documentos que se lleven en el servicio.
— Adoptar todas las medidas de carácter urgente que sean necesarias para el buen funcionamiento de los servicios del cementerio, siempre que éstas no puedan ser consultadas previamente con el resto de los órganos competentes. Les deberá informar de ellas, tan pronto como sea posible.

**15. artikulua**

Foruako Udalak, hileta-zerbitzuak direla bide eta ordenantza honetan ezarritakoari kalterik egin gabe, kale-bideak, estolda-sare, argiak, arbola-aldatze zein lorezaintza, eraikinak eta herri intereseko gainerako osagaiak mantendu, artatu eta garbitzeko zerbitzu eta lanak eskainiko ditu.

**16. artikulua**

Hilobi, horma-hilobi, hezurtegi, objektu eta instalazioak garbitu eta artatzea norbanakoen ardura izango da. Norbanakoek beharra bete ezean, eta aipatutakoak hondatuta daudela ikustean, udal hileta-zerbitzuek titularrarengana joko dute, lan horiek egin ditzan horretarako emandako epean. Horrela egiten ez badu, Udalak egin dezake sorospidetasunez eta norbanakoaren kontura, Araudi honetan hileta-eskubidearen iraungipenaz ezarritakoari kalterik egin gabe.

**17. artikulua**

Hilerriaren barruan ezin dira zati edo marmolak zerraz moztu, ez desegin, ez antzekorik. Ezinbestez hala egin behar bada, udal organo eskudunari baimena eskatu beharko zaio, eta horrek lanak non egingo diren esango du.

LAUGARREN KAPITULUA

**LANGILEAK**

**18. artikulua**

Udalak ehorzle-arduradunaren beharra egingo duen pertsona edukiko du. Funtzionario edo lan-kontratuko langilea izango da, legez ezarritako baldintzetan kontratatuko dena eta eginkizun hauek eta Udalarentzako diren beste batzuk batera egin ahal izango ditu.

Haren eskubide eta betebeharrak Araudi honetan eta kasuan kasuko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera araupetuko dira.

**19. artikulua**

Kapitulu honetan agertzen diren langileek ezin izango diote norbanakoren bati udal hilerriko lanik egin.

**20. artikulua**

Honako hauek dira hilerriko langileen eginkizunak:

— Hilerriko ateak ezarritako orduan ireki eta ixtea hileta-zerbitzuak egiteko.
— Ehorzketa lizentzien ardura izatea.
— Ehorzketa zedulak sinatzea eta udal hileta-zerbitzuei horiek eta aurreko atalean aipatutako lizentziak ere itzultzea.
— Jasoko dituzten agiriak hileta-zerbitzuei bidaltzea artxiba ditzaten.
— Hilerriaren barrunbea zaintzea eta antzematen dituzten anomaliak udal organo eskudunari jakinaraztea.
— Gorpuzki eta objektuak hilerrian sartu edo hortik ateratzen ez uztea, beharrezko baimena eduki ezean.
— Txakurrak eta beste animaliak hilerrian sartzen ez uztea.
— Beharrezko agiriak aurkeztu ondoren, ehorzketa, hobitik ateratze, lekualdaketa eta beste zerbitzuak eskaintzea eta horiek behar bezala egiten direla hilobiaren ondoan zaintzea amaiera arte.
— Hilerriko toki publiko guztiak garbitasun, artapen eta ordena baldintza egokietan daudela zaintzea, baita barrunbearen hornidura zaintzea ere.
— Bere keinu, jokabide, edo beste arrazoi nabarmen batzuk direla bide, barrunbeko lasaitasun edo lekuari zor zaion begirunea apur ditzakeen pertsonarik sartzen ez uztea.

**Artículo 15**

El Ayuntamiento de Forua, a través de sus servicios funerarios y sin perjuicio de lo dispuesto en la presente ordenanza, tendrá a su cargo la prestación de los servicios y trabajos relativos al mantenimiento, conservación y limpieza de los viales y caminos, red de alcantarillado, alumbrado, arbolado y jardinería, edificios y demás de interés general del cementerio.

**Artículo 16**

La limpieza y conservación de las sepulturas, nichos y osarios, y de los objetos e instalaciones, correrá a cargo de los particulares. En caso de que los particulares incumplieran el deber de limpieza y conservación, y cuando se aprecie estado de deterioro, los servicios funerarios municipales, requerirán al titular del derecho afectado, y si éste no realizase los trabajos en el tiempo señalado, el Ayuntamiento podrá realizarlo de forma subsidiaria, a cargo del particular en cuestión, sin perjuicio de lo dispuesto en este Reglamento, respecto a la caducidad del derecho funerario citado.

**Artículo 17**

Se prohíbe realizar dentro del cementerio operaciones de serrar piezas o mármoles, así como de desguazar u otras similares. Cuando por circunstancias especiales se precise hacerlo, se deberá solicitar la autorización del órgano municipal competente, que designará el lugar concreto donde se tendrán que llevar a cabo estos trabajos.

CAPITULO CUARTO

**PERSONAL**

**Artículo 18**

El Ayuntamiento, contará con una persona que realizará las funciones de enterrador-encargado, y que podrá ser funcionario o personal laboral, contratado en los términos legalmente establecidos, pudiendo compatibilizar estas funciones, con otras al servicio del Ayuntamiento.

Sus derechos y deberes se regularán por lo dispuesto en este Reglamento y en las disposiciones generales de aplicación en cada caso.

**Artículo 19**

El personal a que hace referencia este capítulo no podrá dedicarse a ningún trabajo para particulares que esté relacionado con el Cementerio Municipal.

**Artículo 20**

Las funciones del personal al servicio del cementerio son:

— Abrir y cerrar las puertas del cementerio a la hora señalada para los servicios funerarios.
— Hacerse cargo de las licencias de entierro.
— Firmar las cédulas de entierro y devolverlas a los servicios funerarios municipales conjuntamente con las licencias citadas en el apartado anterior.
— Enviar a los servicios funerarios para su archivo la documentación que reciba.
— Vigilar el recinto del cementerio e informar al órgano municipal competente de las anomalías que observe.
— Impedir la entrada o salida del cementerio de restos mortales y objetos, si no se dispone de la debida autorización.
— Impedir la entrada al cementerio de perros y otros animales.
— Disponer la realización de las inhumaciones, exhumaciones, traslados y otros servicios, una vez presentada la documentación necesaria, y vigilar, permaneciendo al pie de la sepultura que se realicen debidamente hasta el final.
— Cuidar de que todos los departamentos públicos del cementerio se encuentren siempre en perfecto estado de limpieza, conservación y orden, así como cuidar del ornato del recinto interior.
— Impedir rigurosamente la entrada al cementerio de toda persona o grupo que, por sus gestos, comportamientos u otros motivos ostensibles, pueda perturbar la tranquilidad del recinto o alterar las normas de respeto inherentes a este lugar.

— Hilobiak hustu eta garbitzean ateratzen diren arropak, hileta-tresnak eta bestelako objektuak deuseztatzen direla ziurtatzea.
— Hilerrira sartzeko ateetako giltza gordetzea eta Udaleko Alkatearen baimenik gabe ezin zaio beste edonori utzi. Era berean, hilerriko toki eta zerbitzuetako giltza guztiak ere edukiko ditu eta beste inork ez ditu edukiko.

— Hilerriko zerbitzuetako ordena eta antolaketari buruz Foruako Udaleko Alkate-Presidenteak emango dituen aginduak betetzea.

BOSGARREN KAPITULUA

ERREGISTRO LIBURUAK

**21. artikulua**

Udala honako erregistro liburuez arduratuko da:

— Ehorzketen erregistro liburua.
— Hobitik ateratze eta lekualdaketen erregistro liburua.
— Hilobi, horma-hilobi eta hezurtegien erregistro liburua.

**22. artikulua**

Hilobien erregistro liburuan ondorengoak agerraraziko dira:

— Titularraren izena, abizenak eta gainerako datuak.
— Adjudikazio eguna eta Udalak emandako hileta-eskubide mota, baita eskubidea bukatzen den eguna ere.

— Hilobien identifikazioa, haien kokatze zehatza eta dagokien ordena zenbakia.
— Hilobi bakoitzean ehortzirik dauden pertsonen izen, deitura eta gainerako datu pertsonalak; eta egiten den ehorzketa bakoitzaren eguna ere agerrarazi beharko da.
— Hileta-eskubidea iraungitzeagatik edo beste edozein arrazoirengatik horma-hilobia Udalaren esku geratu den eguna.

**23. artikulua**

Ehorzketen erregistro liburuan ondorengoak bilduko dira:

— Hildakoaren izena, abizenak eta gainerako datu pertsonalak.
— Helbidea eta jatorria.
— Heriotzaren eguna, ziurtagirian agertzen dena.

— Ehorzketa eguna.
— Ehorzketa hori egin den guztientzako eremuko lur emate, hilobi edo horma-hilobiaren kokalekua eta berori identifikatzeko behar diren xehetasunak.
— Ehorzketa baimendu duen epaitegia.

**24. artikulua**

Hilobitik ateratze eta lekualdaketen erregistro liburuan ondorengoa agerraraziko da:

— Gorpu edo gorpuzkinez arduratu den pertsonaren izena, abizenak eta gainerako datu pertsonalak.
— Hilobitik atera edo lekuz aldatu behar den gorpuaren izena, abizenak eta gainerako datu pertsonalak.
— Heriotzaren eguna.
— Gorpua zein leku edo hilobira eramango den.
— Lekualdaketa edo hilobitik ateratzea baimendu duen agintaritza eta baimenaren eguna.

III. TITULUA

HILOBIAK

**25. artikulua**

Foruako Hilerri Zaharrean dauden instalazioez aparte, Udalak ehorzketarako horma-hilobiak eta gorpuzkinen horma-hilobiak edo hezurtegiak eraikiko ditu; horien kopurua beharrizanen estatistikak aurretik aholkatuko du. Era berean, araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei hileta-eskubideak emango dizkie Udalak eta eskabide- ordena zorrozki zainduko da horretarako.

— Cuidar de la destrucción de ropas, utensilios fúnebres y enseres procedentes de la evacuación y limpieza de sepulturas.
— Conservar la llave de las puertas de acceso al Cementerio, no pudiendo cederlas o dejarlas a nadie sin autorización del Alcalde del Ayuntamiento. También mantendrá en su poder todas las llaves de las distintas dependencias y servicios del Cementerio, que tampoco podrán estar en posesión de otras personas.
— Ejecutar las instrucciones que emanen, en su caso, del Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Forua, en lo que respecta al orden y organización de los servicios del Cementerio.

CAPITULO QUINTO

LIBROS-REGISTRO

**Artículo 21**

En el Ayuntamiento se llevarán los siguientes libros de registro:

— Libro de registro de inhumaciones.
— Libro de registro de exhumaciones y traslados.
— Libro registro de sepulturas, nichos y osarios.

**Artículo 22**

En el libro registro de sepulturas, se harán constar las siguientes particularidades:

— Nombre, apellidos y demás datos del titular.
— Fecha de adjudicación y clase de derecho funerario concedido por el Ayuntamiento, así como la fecha de finalización del mismo.
— Identificación de las sepulturas, con indicación de su exacta ubicación y número de orden que les corresponda.
— Nombre, apellidos y demás datos personales de las personas inhumadas, haciendo constar la fecha de las inhumaciones que se realicen.
— Fecha en que, por caducidad del derecho funerario o por cualquier otra causa quede el nicho a disposición del Ayuntamiento.

**Artículo 23**

En el libro registro de inhumaciones se detallará:

— Nombre, apellidos y demás datos personales del difunto.
— Domicilio o lugar de procedencia.
— Fecha de la defunción, según consta en el correspondiente certificado.
— Fecha de la inhumación.
— Situación del enterramiento en tierra en zona común, sepultura o nicho en el que se realice la inhumación, con el detalle necesario para su exacta identificación.
— Juzgado que autorice la inhumación.

**Artículo 24**

En el libro registro de exhumaciones y traslados se hará constar:

— Nombre, apellidos y demás datos personales de la persona que se haga cargo del cadáver o de los restos.
— Nombre, apellidos y demás datos del cadáver que deba ser objeto de exhumación o traslado.
— Fecha de fallecimiento.
— Lugar o sepultura a la que se traslada el cadáver.
— Autoridad que autorice el traslado o exhumación y fecha de autorización.

TITULO III

SEPULTURAS

**Artículo 25**

Además de las instalaciones ya existentes en el antiguo Cementerio de Forua, el Ayuntamiento, cuidará de construir nichos de enterramiento y nichos de restos, u osarios, en el número que aconsejen las previsiones estadísticas de necesidad, y otorgar derechos funerarios sobre ellos, a los solicitantes, que cumplan los requisitos establecidos en el presente Reglamento, ajustándose a riguroso orden de petición.

Halaber, guztientzako eremua du Udal Hilerrian, udal mugartean hiltzen diren eta hilobi edo horma-hilobien gaineko hileta-eskubiderik ez duten pertsona guztiak ehorzteko.

Asimismo dispone de tierra común en el Cementerio Municipal, para el enterramiento de todas aquellas personas que fallezcan en el término municipal y no dispongan de un derecho funerario sobre sepulturas o nichos de enterramiento.

**26. artikulua**

1. Udalerrian bizi diren herritarrek eta Foruan jaiotako pertsonek (udalerrian bizi ez arren) emakidaren hileta-eskubidea jasotzeko aukera izan dezakete; eskubide hori 99 urterako emango da gehienez. Bidezko Zerga Ordenantzak ezarri duen emakidaren hileta-eskubidea lortzeko tasen ordainketaren bidez adjudikatuko dira (54) ehorzketarako horma-hilobiak eta 105 gorpuzkien horma-hilobi edo hezurtegiak, eraiki berriak.

2. Udalerrian bizi diren herritarrak eta Foruan jaiotako pertsonak (udalerrian bizi ez arren) baina 99 urterako horma-hilobi baten emakidaren titularrak ez direnak ehorzteko gordeko ditu Udalak gainerako (54) horma-hilobiak. Horma-hilobi horien gaineko hileta-eskubidea errentamenduaren bidez emango da gorpua berehala gordetzeko eta 10 urterako izango da.

Epe hori bat-batean aldatuko da, indarreko araudiak ezarriko duen ehorzketaren gutxieneko epearen aldaketaren arabera.

Foruan bizi edo jaio den herritarra hiltzen denean, errentamendu eskabidea aurkeztu ahal izango du hildakoaren edozein senitartekok gorpua berehala gordetzeko. Senitarteko hori, eskatzailea, bidezko Zerga Ordenantzak ezarri duen errentamenduaren hileta-eskubidea lortzeko tasaren subjektu pasiboa izango da.

3. Nolanahi ere, Foruan pertsona bat hiltzen denean baina hilerri honetako hilobi eta horma-hilobien hileta-eskubideen titularra ez bada eta beste inor gorpuaz arduratzen ez bada, Udalak gorpu hori ehorzteko izango da guztiontzako eremua eta horretarako epea aurreko atalean ezarri den berdina izango da (bai beste hilerri batera eramateko bai Udal Hilerri honetako hilobi edo horma-hilobi batean ehorzteko, hilobi horietako eskubideren baten titularra izanik, eta bai horma-hilobi baten 10 urterako errentamendu eskubidea eskatzeko; edozelan ere, baldin eta horretarako baldintzak betetzen badira).

